

| 1.UNITATE DIDAKTIKOA: Uraren bidea | | | |
|---|--|--|---|
| INPLIKATUTAKO ARLOAK: Kultura zientifikoa | | | |
| GAIA: Naturaren baliabideak: ura eta energia | MAILA: DBH 4 | SAIO KOPURUA: 1 -Txingudiko Zerbitzuetako hezitzailearen eskutik. | |
| IKAS-EGOERAREN MARKOA | | | |
| Testuingurua: Irun eta Hondarribiko ura Aiako Harria mendiaren beste aldean kokatzen den Endarako urtegitik dator. Bertatik Elordiko uren tratamendurako plantara doa edangarri bihurtzeko eta ondoren gure etxeetara bideratzen da. Hala ere, bidean hainbat geldiune ditu, izan ere, energia lortzeko ere erabiltzen da. | | | |
| Abiapuntua: Goizeko albistegian Endarako urtegian lehergailuak jarri dituztenaren albistea eman dute, eta 5 ordu baino lehen lehergailuak desaktibatzeneko palanka topatu ezean Irun eta Hondarribiko ur hornidura arriskuan aurkituko da eta Endara urtegiaren inguruko habitatetako kalteak larriak izango dira. | | Azken ekoizpena: Endarako urtegitik etxeetaraino urak egiten duen bidea aztertuko da, amaieran lehergailuak desaktibatzeneko palanka aurkitzeko itxaropenarekin. | |
| PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA | | | |
| Txingudiko Zerbitzuak Irun eta Hondarribiko uraren ziklo integralaz arduratzen dira. Gaur egun ditugun azpiegitura eta baliabideak egungo ur kontsumo eskaria asetzeko prest dauden arren, etorkizun hurbil batean klima aldaketak eragin ditzakeen gorabeherak eta biztanleriaren hazkunde esponenzialak alternatiba ekonomiko zein ingurune inpaktu baxukoak planteatzera behartzen gaitu. Hori horrela, gure ekintzetatik hasten dira aldaketak. | | | |
| Funtsezko kompetentziak: STEM | | | |
| Deskriptore operatiboak | Kompetentzia espezifikoak | Ebaluazio-irizpideak | Oinarrizko jakintzak |
| STEM2. Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du bere inguruan gertatzen diren sistema naturalei buruzko prozesu eta gertaerak ulertzeko eta azaltzeko, tresna egokiak erabiliz. | 5. Gizarte-intereseko arazoei irizpide zientifikoekin heltzea, horiei irtenbideak kolaborazioan emanez, garapen iraunkorarekin bateragarriak izango diren ohitura eta erabaki pertsonal arduratsuak sustatzeko eta hartzeko. | 5.1. Ingurumen-arazo nagusiak, horiek eragiten dituzten kausak eta horiek areagotzen dituzten faktoreak identifikatzea, horiek konpontzeko irtenbideak proposatuz. 5.2. Garapen iraunkorarekin bateragarriak izango diren ohiturak sustatzea eta hartzea, horiek ezagutza eta arrazoibide zientifikoetan oinarrituz. 5.4. Ekintza jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioei buruzko erabaki arduratsuak hartzea, eskura dagoen informazioa eta beren ezagutza zientifikoak erabiliz. | 4.Multzoa Energia berriztagarriak. 5.Multzoa Lehengaien agortzea eta etorkizuna. |
| HELBURU DIDAKTIKOA | | | |
| 1. 2. (...) | | | |
| METODOLOGIA | | | |
| Printzipioak | Antolakuntza | | |
| | Baliabideak | | |
| EBALUAZIOA | | | |

| | |
|--|---------------------------|
| Ebaluazio prozesua: | |
| Ebaluazio adierazleak: 1. 2. (...) | |
| Ebaluazio modalitatea: | Ebaluazio tresnak: |